

Baditugu 2011ko MUko txapelketaren emaitzak

2011/03/28

Atzo goizean MUko 160 ikasle inguru elkartu ziren Arrasateko Mojategiko instalakuntzetan fakultateen arteko txapelketa jokatzeko. Aretu futbolean, futbola 7 eta 11, saskibaloian eta frontenis eta tenisean aritu ziren, Euskadiko txapelketara nortzuk joan erabakitzeko. Giro oso onaz gain, irakasleen laguntza ere izan genuen, horrela, ikasle denak bertaratu ziren kirol modalitate denak jokatuz.

Jarraian, emaitzak eta argazkiak ikusi ditzakezue.

Hurrengo asteazkenean Bilbon emaitzik onenak izatea espero dugu.

